

## Euskadi Irratia eta Berria jarraipena egiten ari zaizkio EKT ikastaroari

2009/01/20

Euskadi Irratia eta Berria jarraipen zuzena egiten ari zaizkio **Euskal Kulturgintzaren Transmisioa** ikastaroari. Batak zein besteak hainbat kazetari matrikulatu dituzte ikastaroan ikasle gisa, hedabide biek asmoa baitute astero jarduteko ikastaroan egindakoaren gainean.

Euskadi Irratiak **Imanol Manterola** kazetaria bidali du ikastarora, eta horrek igande goizetan saio bat egingo du, *Kate mailak lotzen*, ordu erdikoa, zenbait azalpen eta elkarrizketa dituela.

Berriak, berriz, bi kazetari bidali ditu, **Ainara Gorostizu** eta **Jon Eskisabel**, zeinak txandakatuko baitira moduluen arabera. Berriak ere asmoa du astean behin argitaratzeko ikastaroaren berri, Kultura atalean. Halaber, astero bideoak eskegiko ditu bere webgunean, eta hor agertuko dira ikastaroan emandako hitzaldien laburpenak.

### Jakintza herriarentzat

Ikastaroko antolatzaileak pozik daude euskal hedabideen jarraipenarekin, euren leit motiva ere hortik doalako: "**Herri jakintza nahi dugu, eta jakintza herriarentzat nahi**". Ikastaroaren izenak berak adierazten du bertan esandakoa transmititu beharra dagoela, herrian bertan somatzen delako horren premia.

